



## **Kanalak**

Gure proiektua webgune bat da non denboraldi baterako nahi duzun produktua alokatu dezakezun.

Guk ez ditugu produktuak eskainiko, bere produktuak alokatzen dituen pertsona eta alokatu nahi duen bezeroaren arteko bitartekari gisa funtzionatuko dugu. Sare sozial antzeko bat, alokatzailea eta bezeroak elkar harremantzen dituen.

Banaketa-enpresa baten bitartez egingo ditugu banaketak. Enpresa bat azpikontratatu dugu (SEUR) eta enpresa honek egingo ditu banaketak. Alokatzailleak produktua SEURi entregatu beharko dio, eta enpresak banaketa 24h-tan egingo du. Modu honetan, bi erabiltzaileen arteko harreman zuzena ekidingo da, eta egoera deseroso hori ekiditea ahalbidetuko dugu. Gainera, modu honetan, produktuak ongi paketatuko dituzte eta erabilpen instrukzioak emango ditugu.